## 6. PROIEKTUAREN JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA DOIKUNTZA

Helburuak zer nolako mailan lortu diren jakiteko, LORPEN ADIERAZLEAK definituko ditugu.

Lorpen adierazleak helburuekin lotuta daude, eta hauekin, jakin nahi dugu, garatutako ekintzen bitartez, zuzendaritza-proiektuaren helburua bete den ala ez.

AGINTE KOADROAk Zuzendaritza-proiektuaren agintaldiko urte-bakoitzerako adierazle-multzo koherente bat biltzen du. Helburuei, prozesuei eta emaitzei buruzko informazio erabakigarria jasotzen du, oso modu bisualean eta intuitiboan.

ADIBIDEA

**2023-2027 AGINTE KOADROA**

| | konpetentziarekin lotura | helburuak | LORPEN ADIERAZLEAK (SMARTS) | DENBORALIZAZIOA 23-24 | 24-25 | 25-26 | 26-27 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.H | K.2. Eraldaketarako antolaketa<br>K.7. Elkarbizitza positiboa | Familia guztiek gure ikastetxean lekua dutela sentitzeko prozedurak adostea, idaztea eta garatzea, eskola-komunitateko kideen parte-hartzea errazteko guneak eta uneak sortuz. | Gurasoekin elkarrekintzen balorazio galdetegian, euren asebetetzea %70 baino handiagoa da. | ● | ● | | |
| | | | Antolatutako ekintzetan etorritako guraso kopurua % 10 igo da. | ● | ● | ● | ● |
| | | | | | | | |
| 2.H | | | | | | | |
| 3.H | | | | | | | |
| 4.H | K.5. Ikasle guztien arrakasta<br>K.7. Elkarbizitza positiboa<br>K.8. Elkarrekin ikasten duen komunitatea | Ikastetxearen funtzionamendua hobetzea, modu kolaboratiboan lan-eginaz eta ardurak modu koherentean banatuz, taldean hartutako erabakiak eraginkorrak direla bermatzeko. | Lan-kolaboratiboaren inguruko galdeketan langileen asebetetze maila %80 baino handiagoa da. | ● | ● | ● | ● |
| | | | Arduren banaketaren erregistroan irakasleen %90ak izan ditu ardura bat baino gehiago. | ● | | ● | |

ikus 8. txantiloia